

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARTZINIEGAKO UDALA

#### **Ibilgailuen gaineko 2022ko zerga eta urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborren 1/2022 tasa ordaintzeko epea**

Joseba Vivanco Retes, Artziniegako Udaleko alkateak, ondokoa jakinarazten dut:

2022ko maiatzaren 27a eta uztailaren 27a bitarteko egun baliodunetan (biak barne) kobratzeko jarriko dira, borondatezko epean, bai trakzio mekanikoko ibilgailuen eta horien atoiaren gaineko 2022ko zergaren ordainagiriak, bai etxeak edateko urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborren tasaren ordainagiriak, 2022ko lehen seihilekoari dagozkionak.

Eragindako zergadunek udalaren gordailuzaintzan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, bulego orduetan, epe horretan.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa.

Behin epe hori igarota, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, bat etorritik indarrean dagoen dirubilketarako arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2022ko maiatzaren 5a

*Alkatea*

**JOSEBA VIVANCO RETES**